



TENE



IGANDE arratsalde batez, duela bizpahirur urte, *Anzu-berro* eta biak gerthatu ginen Oyarzun'go eskual jai batzuetan. Ez gaude, ez bat ez bertzea, igande hura ahantzirik. Eta norbeit izan balitz han, gurekin, eskuara galzera, eskuara hiltzera doala derasaten hoitarik, hitz dautzuet bertzerik aithortu beharko zuela Oyarzun herriko etchetik atheratzean.

Han ginuen ikusi eta entzun, lehen aldikotz, *Tene Deba'* koa. Gizonak, mutil gazteak, oste handian, esku zartaka, oihuka : Gora Euzkadi ! Gora Gure Herria ! Gora Tene !... Emakume bat, arpegiz churi churia, beltzez jauntzirik, irri ezti batekin, herabe hoinbertze eta holako jaunen aintzinean mintzatzeko eta mintzatu behar. Etzuen elhe hanitzik erran ; aipatu zituen bakarrak bihotzetik jali baitzaizkon haatik, bihotz hoberenetik, eta jadanik sutan zauden bihotzetarat jautsi ! Zer bozkariozko biltzarra !

Nor da bada Tene hori ? Eskualdun nechka gazte bat, Deba, Gipuzkoar itsas bazterreko herri ezin pollitago batean sortua, handitua eta, nik uste, bethi han dagona.

Eskuara badaiki, eskuaraz mintzo da, eskuaraz idazten du. Eta Tenek nahi liuzke bere lagunak, eskuaraz mintzaterat, eskuaraz idazterat, eskuara maitzaterat bildu.

— ... O Gure euzkera Gozoa ! O Amaren magalean ikasi gendun izkuntz samurra ! Maite ote zaitugu bear ainbat ?

Ara emen nere zaletasun guzien gain inoiz nere buruari dagiodan itauna : Maite ote degu gure izkuntza, bear ainbat, bear bezela...? Ez det uste. »

Tene'ren idazki eta olerkiekin Zornotzan egin dute liburu bat Jaungoiko-Zale'ren moldetegian. Liburu hortarik ginuen joan den ilabeteko Gure Herrian agertu *Ama*, olerki choragarria.

Tene'ren gogoaran berri ? Huna : « Edonun azaldu euzkotarrak gerala eta gure Aberria Euzkadi dala ; eta Euzkadi, Arana Goiri'tar Sabin'ak irakatsi zigun bezela, Jaungoikua'rentzat nai degula. » Miren Itziartxo maiteari ez dako bertzerik erraiten... « Beste on guziaz gañera, zuk eta nik, Itziartxo, Jaungoikoari zor diogu euzkotar eta euzkeldun izatea ; eta neretzat beintzat ezer zaidanik pozkarrien bai da au. »

Zenbeitak usteko dute, behar bada, Tene buru bero bat dela, maketo baten ikusteak erhotzen duena oihal gorriak zezena erhoarazten duen baino lasterrago.

Ez, burua zuzen du Tenek eta badaki arras ongizet dion, zeri doan... « Gu Aberriarentzat eta Aberria Jaungoikua-rentzat... Politika emakumientzat ez dala : onetan oso osoan zeurekin nago ; nik ere ez det ondo arkitzen politika edo erriketa emakumientzat ; batetik, izanik politika ustearen ondorea, eta ustea (gai onetan beintzat) erri-zaintzazko jakintzaren ondorea, arazo au emakumioi ez dagokigu, gizasemeai bezin ondo ; abek bezin adimen argidunak, edo beintzat agitz ain ikasiak ez geralako ; eta bestetik, senditik kaporako ardura abek, emakumea, bere gisako bearkun ingurutik aldentzen duteleko, eta au, sendiyarentzat kaltegarri izanik gizartearen galbide litzakelako.

Baña abertzaletasunak, Miren Itziar, ez du « politika »-kin zer ikusirik. Au uste baten ondorea dan bezela, abertzaletasuna biozkada baten ondorea da, maitasun bat da ; eta alde ontatik, iya-iya ausartuko nintzake esatera gizasemeai baño obeto dagokigula abertzaletasuna ema-

kumiai ; adimen argiya oyen ogasuna bada, maitasuna gurea dalako, emakumiena dalako. »

Hitz horien gatik ez ahal du Estella iaunak preso ezararaziko Tene. Baiman, gela batean gakhutzen balaukute ere, ez dadien gehiago eskuaraz mintza, ez dezan gehiagoko eskuaraz idaz, balakike oraino Tenek zer asma eta zer erran :

« Nere gelako leyotik
dager ortze zati bat,
berari zor dizkat nere
oldozkun gozoenak.
Naiz euzkiz jantzita egon,
naiz odeyez izukor,
naiz ilargi geltsuz edo
naiz izarrez dizdikor
mintzo gozoz poztutzen du
nere gogo gaxua...
eta here mintzo eske
zabaltzen det leyua ! »

.....
Gutartean ukanen dituguno Tene bezalako hamar idazle,
biziko da Eskualherria, Eskuarak eginen du bide.

OXOBI.

